I. K. A.

Montserrat Ginesta / Marta Balaguer

# Andere erraldoia eta bela baltza



Sirena bilduma

Sirena bilduma

# Andere erraldoia eta bela baltza



Egilea: Montserrat Ginesta
bizkaieraz: Bibiñe Pujana
marrazkiak: Marta Balaguer

I.K.A. Ibaizabal
Zornotza

Udabarriko goiz baten, Martzelina erraldoia guztiz apainduta, bere gazteluko balkoian eguzkia hartzen egoala, erle "muxil" bat bere behatz orkolora joan eta... zazt, itzelezko haginkada emon eutsan.




ZAZT!


Ai!
Ai!
Ai!
Ai!
Ai!
Ai!

Erleak, tximisteak baino arinago
ihes egin eban, eta Martzelina
koitadearen behatza, puxika gorri
haundi baten moduan handitu zan
plaf! egiteko moduan.
Martzelina aienaka hasi zan
eta hain asko egin ebazan,
egin ere, auzoko guztiak
bildurtu ziran.





Auzokoak berehala, Bisturi osagileari deitu eutsien. Honek, zer eukan ikusirik, esan eutsan:

– Hartu pastila bi goizean eta bi gauean eta batez ere, geldi egon! Ez mogitu!

Hau esanda, Bisturi osagileak papelak maletan gorde eta gaztelutik alde egin eban.



Sei edo zazpi egun igaro eta Martzelinaren behatzak ez eukan hoberik, nahiz eta sendagileak emondako pastilak hartu.

Auzokoak barriro alkartu eta Poli sorginari laguntza eskatzea erabagi eben.

Poli alboko herrian bizi zan.







Sorgina bat-batean etorri zan
bere inarra hegalarian.
Lapiko haundi baten gantzu
magikoa gertatzen hasi zan.







Irekiten euki ondoren,
Martzelinari gantzu honegaz
igurtzi eutsan behatza.






Ai!
Ai!
Ai!
Ai!

Sei edo zazpi egun igaro ziran barriro, baina Martzelinari gantzu magikoak ere ez eutsan ezer egin.

Martzelina barriro hasi zan aienaka.





Oihuok entzunaz batera, handik hur ebilen bela baltza ondoratu eta balkoiko ertzean jarri zan. Martzelinaren behatza ikusi eta esan eutsan:

–Martzelina, Martzelina, beti aienaka egon barik, alaitu eta hasi zaitez barre-zantzoak egiten.

–Ai! ai! –erantzun eutsan Martzelinak–, ona nago ni, barre egiteko!





Ai!
Ai!
Ai!
Ai!
Ai!
Ai!
Ai!
Ai!



Baina, bela baltzak jaramonik
egin barik txistu egin eban eta
zeru guztia bela baltzez bete zan.







Belak, Martzelinari kili-kili egiten hasi jakozan: buruan, belarripean, sudurrean, besapean...

-Geldi! Geldi!, -oihukatzen eban Martzelina erraldoiak zerua apurtzeko moduko barre-zantzoak eginez.





Eta hainbeste barre egin eban,
apurka apurka behatza mehetuten
hasi jakon.

Larrosea baino dotoreago eta
pozago dantzan hasi zan;
bela guztiak ere lagundu egiten
eutsien.

Euren zoroaldi horrek orduak
eta orduak iraun ebazan,
ilargiak urten eban arte.







Kataluniar jatorrizko izenburua:
La geganta i el corb negre

© Montserrat Ginesta, 1.989, testua.
© Marta Balaguer, 1.989 marrazkiak.
© La Galera, S.A. Editorial, 1.989
© Euskaraz: Elkar, S.A. 1.989

Eskuiskribatzaile: Joxemari Zelleria
Lege gordailua: B. 28.864/1.989
I.S.B.N. 84-7529-717-X

Elkar. S.A. Argitaletxea
Esterlines 10-2º 20003 Donostia
Tf.: 426319
Inprimatzaile: Índice, I.G.
Fluvià, 81-08019 Barcelona

Liburu honek Eusko Jaurlaritzako
Kultura eta Turismo Sailaren
laguntza jaso du.

I. K. A.

1. Ahotsik bako aita
2. Trena eta ilargia
3. Hodei tripaundia
4. Deabruaren zubia
5. Semaforoa
6. Azeria eta arrainsaltzailea
7. Musar asmatzailea
8. Urlainoa poltsikoetan
9. Igel azkarra
10. Andere erraldoia eta bela baltza
11. Martarentzat eskutitza
12. Hatzamarrak, banan-banan, hamar

ISBN 84-7529-717-X

9 788475 297170

Sirena bilduma